BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/04/26

# Otsoa "ez dago desagertzeko arriskuan" aditu batek adierazo dauenez

Batzar Nagusietako Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako batzordean egindako agerraldi batean, Espainiako Estaduan "otsoa ez dagoala desagertzeko arriskuan" adierazo dau Mario Saenz de Buruaga Recursos Naturales S.L. enpresako zuzendariak. Hainbat administrazino publikori aholkuak emoten "21 urte" daroazan arlo horretako adituak eta aholkulariak zehaztu dauenez, une honetan espezie horren existentzia Andaluzian baino ez dago mehatxatuta. Azkenengo erroldak erakusten dauenez, une honetan "297 talde" dagoz, horreetako bat Bizkaian.

Aditua EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek eskatuta joan da Bizkaiko Batzarretara, otsoak gure lurraldean dauen presentziaren ganean berak dituan datuen barri emoteko, animalia basati horrek, "kudeaketarako eta kontserbazinorako estadu mailako estrategia dauen bakarrak", joan dan neguan Karrantzako abereei hainbat eraso egin ostean. Hori dala eta, Aldundiak ehizaldi "bi" baimendu ebazan, urtarrilaren 22an eta 24an, eta ehizaldi horreetan "hiru" otso hil ziran.

Saénz de Buruagaren berbetan, eta bere enpresak Euskadiko hiru administrazinorentzako (Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia eta Bizkaiko Foru Aldundia) egindako txosten bitan oinarrituta, Bizkaian "talde bat" dagoala ikusi da, Burgosegaz eta Kantabriagaz konpartituta "bost otso gitxienez". Talde hori "foto-tranparen" teknika erabilita egiaztau ahal izan da, Ordunte eta Armañón inguruetan.

Berak adierazo dauenez otsoagaz erlazionautako gairen bat dala eta parlamentu batean agertzen dan bosgarren aldia dauen (Araban eta Madrilen be egon da) adituak autortu dauenez, espezie horrek, abereen ustiapenak dagozan lekuetatik igaroten danean sortzen dauen arazoa "oso konplexua da", eta "ez dago konponbide errazik". Otsoen erasoen ganeko "1.500 peritatze" egin dituan enpresaren arduradunaren eretxiz, Bizkaiko Foru Aldundiak egiten dauen kudeaketea "egokia" da, eta "ezin da askoz gehiagorik egin", eta horren ostean, "mundura danok gauza bera egitera gatozala" esan dau.

Sáenz de Buruaga bat etorri da Batzarretako taldeakaz, otsoaren presentziaren eta abere ustiapenen artean "orekeari" eustea beharrezkoa dala esatean, eta gaur egun indarrean dagozan prebentzino politikei eustearen alde agertu da, espeziearen kontrola ehizaldien bitartez, mastinak erosteko laguntzak emonez, edo aurretik peritatu diran hildako abereengaitiko laguntza zuzenen bidez abeltzainei laguntza zuzenak emotea, edo aseguruak ordaindu ahal izateko laguntza ekonomikoa bideratzea moduko beste laguntza batzuen bitartez.

Adituak kritikau egin dau babes maila indartzearen alde agertzen diran talde ekologista eta alderdi politiko batzuen jarrerea, bere eretxiz neurri horrek ez dauelako ezelango erlazinorik espeziea berreskuratzeagaz. "Akatsa da", esan dau, eta horren ostean hainbat adibide jarri ditu. Portugalen, hirurogeta hamarreko hamarkadatik babestuta dagoan espeziea da, eta bere presentziak "%20 egin dau behera". Gaztela-Leonen, barriz, "ehizatu daitekean" animalia da, eta "otsoaren presentziak %20 egin dau gora".

Estadu osoan “urtero ia 5 milioi euroko kostua dauen arren” animalia aniztasunean orekeari eusteko otsoak daukan garrantzia azpimarratu dau adituak. Kantaurialdean, otsoaren janariaren “%75 eta %80” artean orkatzetan edo basurdeetan oinarritzen da. “Eskerrak animalia horreen kontra gogor ekiten dauela”, esan dau, animalia horreen ugalketa kontroletako dauen garrantzia irudikatuz. Bere menuaren ganerakoa –“%20a”–, abereak izango litzatekez.

## “BOSGARREN” EDUKIONTZIA

Horren ostean etorri dan agerraldi batean, Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako diputatu andreak EH Bilduri erantzun deutso, frakzino organikoaren gaikako bilketarako edukiontzia ezarteko Udaletara eta Mankomunidadeetara bideratu diran dirulaguntzen ganean. Talde horrek esan dauenez, lehia sinple prozeduraren bidez emondako laguntza horreek, zoritxarrez, “atara eta denpora gitxira” amaitu dira. Talde horren eretxiz, horrek argi eta garbi erakusten dau 2016ko aurrekontuetan horretara bideratu diran “1.090.000 euroak” “ez dirala nahikoak izan”.

Aldundiko arduradunak gogoratu dauenez, diruz lagundu daitekezan hiru elementu dagoz: edukiontziak, boltsak, baldeak eta giltzak eskuratzeko pakete bat; autokonpostagailuak eta birringailuak erosteko beste bat; eta herritarren informazino planak gauzatzeko azkenengo laguntzea.

Diru-laguntzen zenbatekoak kontuan izanda, aitatutako materiala eskuratzeko gehieneko laguntzak 50.000 eurokoak edo 80.000koak ziran, udalerriak 20.000 biztanle baino gitxiago edo gehiago izatea kontuan izanda. Informazinorako ekintzei jagokenez, gehienez 25.000 eurokoak ziran udalerri txikienentzat eta 60.000 eurokoak 20.000 biztanle baino gehiagokoentzat.

Aurrekontuetan jasotako milioi bat euro horreetatik, Aldundiak Udaletara eta Mankomunidadeetara bideratu ditu "990.000 euro", eta beste "100.000 euro" pertsona juridikoetara. Guztira, “16 udalerrik eta 7 mankomunidadek” lortu ditue laguntzak eta, orain arte, diru-laguntza jaso barik “5 udal eta mankomunidade 2” geratu dira, hau da, "Muskizeko, Balmasedako, Foruko, Mungiako eta Basauriko Udalak", eta "Lea-Artibaiko eta Durangaldeko mankomunidadeak".

Unzuetak adierazo dauenez, hurrengo deialdirako laguntza batzuk baztertzea aztertzen dabilz, “urtero %100ean ez dirala ordaintzen ikusten dogulako, boltsak, adibidez”, eta lehiaketaren alde egiteko aukerea be aztertzen dabil bere saila. 2017. urteko aurrekontuen ganean itaunduta, oraindino egin barik dagozan arren “aurtongo deialdiari jagokozan aitamen tekniko egokiak aurreikusiko dirala” adierazo dau Unzuetak.

## ZUGATZEN KONTROL BAKO MOZKETEA TRIANON

Podemos Bizkaiak egindako itaunari erantzunez, Abantoko udalerrian konniferoz eta bertako espeziez osatutako baso bat baimen barik mozteagaitik zezeilean enpresa bati zabaldu jakozan inkoazino espediente biren ganean ez dagoala barrikuntzarik esan dau Unzuetak. “Interesautako aldeen alegazinoak jasoteko zain gagoz”, adierazo dau, “abuztuan” amaituko dan izapidetzeetarako epealdiaren barruan. Aldundiko arduradunak azaldu dauenez, bere sailak dakienez “ez da zigor izaerarik dauen diligentziarik zabaldu”.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
26/04/2016

# El lobo "no está en peligro de extinción", según un experto

En una comparecencia en la Comisión de Sostenibilidad y Medio Natural de las Juntas Generales, Mario Sáenz de Buruaga, director de Consultora de Recursos Naturales S.L., ha asegurado que el lobo “no está en peligro de extinción” en el Estado español. El experto y asesor en la materia, con “21 años" de bagaje asesorando a distintas administraciones públicas, ha precisado que la existencia de esta especie sólo está amenazada actualmente en Andalucía. Según el último censo, existen "297 manadas", una de ellas en Bizkaia.

El experto acudía a la Cámara vizcaína a petición de los grupos junteros de PNV y PSE-EE para explicar los datos que él maneja en relación a la presencia del lobo en el territorio, después de que este animal salvaje, “único que tiene una estrategia estatal de gestión y conservación”, haya protagonizado el pasado invierno diversos ataques a la cabaña ganadera de Karrantza, por los que la Diputación autorizó “dos” batidas, los días 22 y 24 de enero, con el resultado de “tres” lobos muertos.

Según Saénz de Buruaga, y en base a dos informes elaborados por su empresa para tres administraciones vascas (Gobierno vasco, Diputación foral de Alava y Diputación foral de Bizkaia), se ha constatado que en Bizkaia existe “una manada compartida con Burgos y Cantabria” y “como mínimo cinco lobos”, que han sido acreditados por medio de la técnica del “fototrampeo” en las zonas de Ordunte y Armañón.

El experto, que según él es la “quinta vez” que comparece en una sede parlamentaria por algún asunto relacionado con el lobo (también lo ha hecho en Alava y Madrid), ha reconocido que el problema que genera esta especie a su paso por terrenos en donde existen explotaciones ganaderas es “muy complejo” y que "no hay una solución sencilla". Para el responsable de la empresa que ha hecho “1.500 peritajes” de ataques de lobo, la gestión que hace la Diputación vizcaína le parece “bien” y “poco más se puede hacer”, después de sostener que “en el mundo todos venimos a hacer lo mismo”.

Sáenz de Buruaga ha coincidido con los grupos junteros en que es necesario mantener un "equilibrio" entre la permanencia del lobo y la existencia de explotaciones ganaderas, y ha apostado por mantener las políticas de prevención actuales como el control de la especie por medio de batidas y ayudas a la adquisición de mastines, y otras encaminadas a indemnizar a los ganaderos mediante ayudas directas por ganado previamente peritado o apoyo económico para pagar los seguros.

El experto ha criticado la postura de algunos grupos de ecologistas y partidos políticos que abogan por intensificar el grado de protección, ya que esta medida no guarda relación a su entender con la recuperación de la especie. “Es un error”, ha dicho, para, a continuación, poner varios ejemplos. En Portugal es una especie protegida desde los años setenta y su presencia “ha disminuido un 20%”, mientras que en Castilla-León que es un animal “cazable”, “ha aumentado su presencia un 20%”.

El compareciente ha subrayado la importancia del lobo para mantener un equilibrio de la diversidad animal pese a que supone un coste de "casi 5 millones de euros al año" en el Estado. En la cornisa cantábrica, "entre un 75 y 80%" de su alimentación está basada en corzos o jabalíes. "Menos mal que dan caña", ha dicho, justificando su presencia para controlar la proliferación de estos animales. El resto de su menú –"un 20%"-, sería ganado.

## "QUINTO" CONTENEDOR

En una comparecencia posterior, la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha respondido a EH Bildu en relación a las subvenciones otorgadas a los ayuntamientos y mancomunidades por la extensión de los contenedores de fracción orgánica de residuos. Este grupo ha lamentado que estas ayudas, otorgadas por el procedimiento de concurrencia simple, se hayan agotado "a poco de sacarlas". Para esta formación, este hecho constata que el "1.090.000 euros" presupuestados en 2016, han resultado ser "insuficientes".

La responsable foral ha recordado que existen tres elementos subvencionables: un paquete para la adquisición de contenedores, bolsas, cubos y llaves de acceso; otro, para la compra de autocompostadoras y trituradoras; y una última ayuda para el desarrollo de planes de información ciudadana.

El importe de la subvención establecía ayudas de un máximo de 50.000 euros u 80.000 para el mencionado material, en función de si el municipio era de menos o más de 20.000 habitantes. En el caso de las acciones informativas, esta cantidad venía a ser de un máximo de 25.000 euros para los municipios pequeños y otro de 60.000 para los que superaran los 20.000 habitantes.

De ese más de un millón de euros presupuestados, la Diputación ha destinado "990.000 euros" a ayuntamientos y mancomunidades y "100.000 euros" a personas jurídicas. En total, han conseguido ayudas "16 municipios y 7 mancomunidades", y hasta la fecha, se han quedado sin subvención "5 ayuntamientos y 2 mancomunidades", en concreto, los ayuntamientos de "Muskiz, Balmaseda, Forua, Mungia y Basauri", así como las mancomunidades de "Lea-Artibai y Durangaldea".

Para la próxima convocatoria, Unzueta ha señalado que están estudiando la eliminación de algunas ayudas que "no vemos que se paguen al 100% año tras año, como las bolsas" y la posibilidad de decantarse por la concurrencia competitiva. Preguntada por los presupuestos de cara a 2017, Unzueta ha indicado que pese a que están sin elaborar "se contemplarán las consideraciones técnicas oportunas relativas a la convocatoria de este año".

## TALA INDISCRIMINADA DE TRIANO

Interpelada por Podemos Bizkaia, Unzueta ha informado de que no existen novedades respecto a los dos expedientes de incoación abiertos a una empresa en el mes de febrero por la tala irregular de un bosque de coníferas y especies autóctonas en el municipio de Abanto. "Estamos a la espera de recibir las alegaciones de las partes interesadas", ha señalado, dentro de un periodo de tramitación que concluye "en agosto". La responsable foral ha informado de que a su departamento "no le consta la apertura de diligencias de carácter penal".